

AURKIBIDEA

Irailaren 28an, URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA.....	4
Urriaren 5ean, URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA	12
Urriaren 12an, URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA	19
Urriaren 19an, URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA.....	26
Urriaren 26an, URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA.....	33
Azaroaren 1ean, SANTU GUZTIEN FESTABURUA	40
Azaroaren 2an, HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA.....	47
Azaroaren 9an, LETRANGO ELIZA SAGARATZEA.....	54
Azaroaren 16an, URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA	62
Azaroaren 23an, JESU KRISTO ERREGEA	69

Irailaren 28an
URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA

Migratzaile eta errefuxiatuen jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandez igande biltzen gara. Jainkoaren hitzak, bertan entzun ohi dugunak, Mahai santuan apaltasunez eta prestutasunez lagundu behar digu.

Jubileu Urte honetan *Migratzaileak, itxaropenean misiolari* direla gogoratzen dugu gaur. Mundu honetako bizitza elkarrekin pozik egitea, etorkizuneko bizia elkarrekin prestatzea ere bada. Eukaristiak laguntzen digu horretan era bikainean.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, barkatuz eta errukituz
agertzen duzu bereziki zeure ahalmen handia;
isur ezazu etengabe gure gainera zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Geure aberastasunari eta erosotasunari begira bizitzea, senideez ahaztuta bizitzea, Jainkoari bizkarra emanda bizitzea da. Entzun dezagun Bere Hitzza. Ikas dezagun Jainkoari begira, senideari begietara begira bizitzen.

Lehenengo irakurgaia (Am 6, 1a. 4-7)

Amosen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jaun ahalguztiduna: «Zoritxarrekoak Sionen lasai bizi direnak eta Samariako mendiaz fidatzen direnak! Marfilezko ohetan luze etzaten dira, artaldeko bildotsak eta ukuiluko zekorrak jaten dituzte; zitararen soinura kantuan egiten dute, doinu berriak asmatuz, David direlakoan; ardoa kopa handitan edaten dute, olio usaintsu bikainenaz gantzutzen dute beren burua. Eta ez die axola Israel herriaren hondamendiak! Horregatik, atzerrira joango dira erbesteratu guztien lerro-buruan, eta hor bukatuko dira horien jan-edanak eta nasaikeriak».

Erantzun-salmoa (*Sal* 146 [145], 6c-7ab. 7c-8. 9-10)

Po - za - ren po - zez gai - nez - ka dau - kat nik go - go - a ,

Sal - ba - tzai - le dut Jaun - goi - ko - a .

-1

- ✠. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.
Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,
gose direnei ogia ematen.
Jaunak askatzen ditu presoak. ✠.
- ✠. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,
Jaunak altxatzen konkortuak,
Jaunak maitatzen zintzoak,
Jaunak ditu etorkinak zaintzen. ✠.
- ✠. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,
baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.
Jauna errege da bettieran,
zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Tm 6, 11-16)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako lehenengo gutunetik

Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, pazientzian eta otzantasunean. Ekin sinesmenaren borroka jatorrari eta eskuratu betiko bizia, hartarako

deitu baitzaitu Jainkoak eta fede-aitormen bikaina egin baituzu, testigu askoren aurrean.

Gauza guztiak biziarazten dituen Jainkoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren auzitegian aitormen bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: bete agindua akatsik gabe eta esankizunik sortu gabe, Jesu Kristo gure Jauna agertuko den eguna arte, bere garaian agerraraziko baitu Jainkoak.

Hura da Nagusi bakarra eta zoriontsua,
erregeen Erregea eta jaunen Jauna;
hura bakarrik da hilezkorra,
eta iritsi ezineko argian bizi da;
ez du inoiz gizakiak ikusi
eta ezin du ikusi ere.
Berari aintza eta agintea betiko. Amen.

Aleluia (2 Ko 8, 9b)



✠. Jesu Kristo, aberats izanik, behartsu egin zen,
bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. ✠.

Ebanjelioa (Lk 16, 19-31)

Homiliarako argibideak (*Ikus Aita Santuaren mezua*)

0.- ZERUA, ABRAHAMEN ALTZOA

- Gaurko ebanjelioan Jesusek mahai gainean jartzen digun parabolak oinarritzko halako justizia poetikoa darama: eskaleari izena jartzen dio eta aberatsari, berriz, ez. Lazaro izeneko eskalea, aberatsaren etxe-ataria etzanda egoten zena. Bestea, aberatsa eta apar artean bizi izan arren, ez dio Jesusek izenik ere jarri.
- Biak, aberatsa nahiz eskale izan, dute helburu bera: zerua, Abrahamen altzora joatea eta han betiko biziaz gozatzea.
- Baina, Jesusek, hemen landu eta jorratu ez den justiziarik luzapena ematen dio beste bizian. Nolabait Jesusek adierazi nahi digu hemengoak han jarraipena duena, hemen egindakoak edo egin gabekoaren ardura izango dugula.
- Askok kontrakoa pentsatu arren, aberatsa eta Lazaro ez daude kontrajarrian. Biak daude harremanetan. Lazaro, aberatsaren etxeko atarian eskean egoten zena eta aberatsa honen sufrimenduari bizkarra emanda bizi dena.
- Biak dute zerua amets. Baina, ez dute patu bera izango.

1.- JUSTIZIA

- Jesusen garaiko gizartean aberatsa ospetsua izango zen, baina Jesusek intentzioz ez dio izenik jarri. Tradizioak Epulon izena jarri zion, "tripontzi", hain zuzen.
- Eta haxe gaurko ebanjelioaren muina: hemen injustiziak iraun duen bezala, Jainko Onak gauzak bere onera itzuliko ditu etorkizunean.
- Jesusek ez du zerua edo infernua deskribatzen gaurko parabolarekin, hemen, ezaguna zaigun mundu honetan behartsuei bizkarra emanez bizi direnei oharpen larri bat jarritz.

- Oparotasunean bizi eta premian daudenei bizkarra ematen diotenak Jaun Onari bizkarra ematen diote, ez dira konpartitzeko gai.
- Oraintxe da unea justizia egiteko, San Paulok Timoteori esaten dioen moduan: “saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, pazientzian eta otzantasunean”.
- Jaunaren justizia hauxe da: hemengo harrokeriak uste baino lehenago amaituko dira eta, heriotzak aberats nahiz pobreak berdintzen dituenek, Jaunak aldrebes egindakoak zuzenduko ditu.

2.- ALDAKETA

- Jaunaren gain gure baldarkeriak utzi baino lehen, Jaunaren eskuetan bere justizia egin arazi baino lehen, geuk jarri behar gara martxan, aldaketaren bidean, bihotz berritzeko prest.
- Halako iskanbilatsua da egungo ipar eta hegoaldearen arteko tartea, geu larritu behar genukeela aldaketa hori lehen bait lehen egiteko.
- Gaurko parabolak zenbaitentzat halako esajeratze bat dela uler dezake Jesusen ahotan. Baina, zeru eta, hain elegante itzulpen berriak adierazten duen Hilan Egoitzaren arteko tartea handia iruditzen bazaio, mundu honetako desoreka handiagoa dela jabetu behar genuke egunkaria irakurtzean, begiak irekitzean, pobrearen egoera ikustean, gure arteko hainbat Lazaroren premiaz jabetzean.
- Gaurko kontua begiak eta bihotza irekitzea da zeruko atea, Jaunak ez, gure elkartasun ezak itxi ez diezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Elizaren alde, bere ondasunak asmo pastoral eta sozialen zerbitzuan erabil ditzala, eska diezaiogun Jaunari.
- Ekonomilariak beren plangintzak egitekoan gogoan izan dezatela beti, pertsonaren osotasunaren garapena izan behar dutela helburu, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure gizartearen oparotasun eta leunkeriazko giroan bizi diren aberatsak kontura daitezela, badirela beren banketeetako ate ondoan horien apurren zain dauden Lazaro pobreak, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotza ez dadila gogortu, baizik eta Jainkoak munduko pobreen bidez egiten digun deia entzun dezagula, eska diezaiogun Jaunari.

Gure Jainkoa, behartsua bere izenez deitu eta aberatsa berriz ezezagun gertatzen zaizuna; entzun gure otoitzak, agertu Zure justizia zapalduen eta emaguzu, Zure hitza entzutean sinets dezagula, hilen artetik berpiztutako Kristo Jaunak gu ere onartuko gaituela gure bizitza bukatzean Abraham gure aitaren altzoan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko errukitsua, onar itzazu gure dohain hauek, eta zeure Elizaren eskaintza honetatik sor ezazu guretzat bedeinkazio guztien iturria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko biziaren sakramentu honek
berri ditzala, Jauna, gure gorputz-arimak,
zure Semearen heriotza aldarrikatuz
berarekin bat egiten dugunok,
haren piztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 5ean
URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristia ospatzeko Jesusek eman zigun aginduari jarraitzen diogu, fedean hazi nahi dugu, fede horrek gure bizitzan eragin dezan eta gure bizitzak eta gure mundua bakezkoak izan daitezen, Jainkozkoak, alegia.

Damu-otoitza

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

- Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, ontasun guztien iturria,
guk merezi eta uste baino neurri handiagoan
betetzen dituzu gure eskariak;
isur ezazu gugana zeure errukia,
askatu gure bihotza beldur guztitik
eta eman eskatzera ere ausartzen ez garena.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jaingo eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Fedea, sakon-sakoneko eta uste onez beteriko fedea agertzen da lehenengo irakurgaian. Ongi uztartzen da Ebanjelioak dienarekin: fedearen dohaina, arduraz eta esker onez onartu behar da.

Lehenengo irakurgaia (*Ha* 1, 2-3; 2, 2-4)

Habakuken profezia liburutik

Noiz arte, Jauna, ari behar dut Zuri erreguka, Zuk entzun gabe? Noiz arte ari behar dut oihuka gogorkeriaren aurka, Zuk salbatu gabe? Zergatik ikusarazten didazu horrenbeste bidegabekeria? Nola egon zintezke zapalketari begira? Hondamen eta gogorkeria ugari aurrean, haserreak eta borrokak nonahi.

Orduan, Jaunak erantzun zidan: «Idatz ezazu agertuko dizudana, ezarri taulatxoetan, erraz irakurtzeko eran. Ikuskari hau ez da beteko epea burutu arte, baina badoa helbururantz, ez du huts egingo; luzatzen bada, zuk itxaron, berandu gabe iritsiko baita. Harroak ez du bakerik bere baitan; zintzoa, ordea, bere leialtasunari esker biziko da».

Erantzun-salmoa (*Sal* 95 [94], 1-2. 6-7. 8-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na-ren min-tzo-

a: "Ez go-gor-tu zu-en bi-ho-tza".




- ✕. Zatozte, degiogun poz-oihu **Jaunari**,
 poz-irrintzi, salbatzen gaituen hark**kaitzari**.
 Aurkez gakizkion eskerrak **emanez**,
 degiogun jai txaloka eta **kantari**. ✕.
- ✕. Zatozte, gurtu dezagun ahus**pez**turik,
 belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren **aur**rean.
 Bera baita gure Jainkoa, '
 eta gu hark larraturiko **her**ria,
 haren zainpeko art**al**dea. ✕.
- ✕. Entzungo ahal duzue gaur haren **a**hotsa:
 «Ez gogortu bihotza Meriban **be**zala,
 Masako egunean basamortuan **be**zala,
 tentatu egin baininduten zuen gur**u**soek,

Bigarren irakurgaia (2 Tm 1, 6-8. 13-14)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

Har itzazu jarraibidetzat, Kristo Jesusengan oinarritzen diren sinesmenaz eta maitasunaz nigandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Zaindu gordailu eder hau, gudan bizi den Espiritu Santuaren indarraz.

Aleluia (1 Pe 1, 25)

✠. Jaunaren hitzak betiko dirau.

Hitz hau zuei hots egin zaizuen Berri Ona da. ✠.

Ebanjelioa (Lk 17, 5-10)**Homiliarako argibideak****0.- HANDITU SINESMENA GUGAN**

- Hain da eskasa eta lotsagarria zenbaitetan gure sinesmena Jaunari etengabe handitzeko biltzen garela batzar santu honetan.
- Eukaristia ez da gelako nabarmenen arteko batzarra, onak garelako biltzen garenon topagunea. Jaunaren errukiaren zain eta bere bihotz onaren besoetan elkartzen garen fededunon ospakizun apala da. Eta, apaltasunaren onarpen honetatik, gaur eta egunero eskatzen diogu Jaunari: “handitu sinesmena gugan”.
- Egia da norberak egin behar duela bihotz aldaketa, bihotz berritzeko bide luzea. Baina, Jaunak gure sinesmena handitu dezan, parean jarri behar dugu eta apal eta zintzo bere premia dugula adierazi. Ozen ez bada ere, isilean, Jaunaren aurrean otoika egiten den erregua.
- Handitze hau ez da gizentzea, harrotzea. Sinesmenak berarekin dakar apaltasuna, Jaunak bakarrik eramaten gaituela bere bide onetik eta gu garela zerbitzari, morroi, gaurko ebanjelioaren esanetan.

1.- MOSTAZA HAZIA

- Jesusen Berri Onaren dinamikaren joko arauak zeharo desberdinak dira gurekin parekatuz gero. Guri handian hordagoa egitea gustatzen zaigu. Eta Jesusek, txikien ariketan ibiltzea du gustuko.
- Jesusen hasierako aukera txiki eta baztertuen bidetik aritzea izan zen. Horixe izan zen bere ibilbidea eta txiki eta historiako ahaztuen bide apal horretatik hemengo eta hango bizirako ikasbide ahaztezina erakutsi zigun.
- Bere ikasle bagara gu, bide horretatik ibili behar gara. Handikeriak mostaza haziaren bidea ez dute jarraitzen.
- Pertsona bakoitzak onartu behar du beregan txikitik hasi dela, harrokeriak Jaunaren aurrean ez dutela batera balio, gizartearen aurrean ospe eta onarpen handia izan arren.
- Mostaza haziaren bidea da kristauaren bide apala.

2.- ZERBITZARI

- Fedea, indarrez eskatu arren, doan ematen zaigun oparia da, Jaunak etengabe eskaintzen digun zeruko dohaina. Eta apaltasun jarrera hori da Jesusek eskatzen diguna, morroi izaera hartzen duenaren portaera.
- Fedearen aurrean axolagabekeria bizi gara, erlatibismo giro epelean. Zenbaitetan ere geuk sentitu izan dugu gure sinesmenak hasierako txinparta hura galdu duela. Hauxe da egungo egoeraren argazki bat eta gaurko fededunak giro aldrebes honetan Jesusenganako atxikimendua apaltasunez bizitzen ikasi behar du. Apal bai, baina era berean, tinko, "Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman" -esan dio San Paulok Timoteori eta gaur ere guri.

- Fededunak ondo asko daki jaso duen sinesmena eman egin zaiola eta ez dela berea erabat. Jainkoak goitik ematen diguna gure senideen artean partekatu behar dugu. Eta honetarako apal jokatu beharko dugu, sinesmenaren doakotasunaren opari ederra etengabe eskainiz. Gu aberasten gaituena besteentzat ere opari izan dadin.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Espirituak gudan sortzen duen seme-alabatzako konfiantzaz beterik, zuzen diezazkiogun gure eskariak Jaunari:

- Elizaren alde: fededun guztien testigantza biziarekin, ager diezaiela gizaki guztiei Jainkoaren salbamena. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri agintarien alde: izan dezatela argitasuna gizaki guztien arteko bakea, ongizatea eta erlijio-askatasuna bermatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gerra eta ezina nozitzen duten herrien alde: indarkeria, suntsiketa eta mina alde batera utzi eta bizikidetzaren alde joka dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gaudenon alde: Jainkoak argi ditzan gure bihotzeko begiak, jaso dugun deiaren handitasuna ikusteko. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, Jainko ahalguztiduna, mostaza hazia adinako fedea dutenen otoitzak entzuten dituzuna, emaguzu bihotz apala, Zure erreinuaren handitasunean landu ondoren Zure maitasunaren ederra goratuko duten zerbitzari apalak senti gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure nahia betez egiten dizugun sakrifizioa,
eta, Zu gorestek ospatzen dugun Eukaristia honen bidez,
eramazu gugan bere betera
zure salbamenak dakarren santutasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, sakramentu honetan parte hartzeak
ase dezala Zurekiko dugun gose-egarria
eta eralda gaitzala hartu dugun horretan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 12an
URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

«Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari» entzungo dugu gaur ere meza-erdian. Eukaristiaren gorespen eta esker on alderdia erakusten digu horrek. Baina entzutea, barkatzea, baketzea eta beste hainbat alderdi ere ospatzen ditugu; denak Jainkoaren aintzarako eta gure onerako.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jauna, izan dezagula beti zure grazia,
bai aldez aurretik, bai bidelagun;
Zuk eutsirik, on egiteko prest egon gaitezen beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jaunaren salbamena gauza txikienetan sumatzen ikasi behar dugu;
benetako salbamena Jainkoa aurkitzean datza eta Haren erreinuaren
alde lan egitean. Entzungo dugun Jainkoaren Hitzak laguntzen digu
Jainkoa gurekin dela aitortzen.

Lehenengo irakurgaia (2 *Erg* 5, 14-17)

Erregeak bigarren liburutik

Egun haietan, jaitsi zen Naaman siriarra Jordan ibaira eta zazpi bider
murgildu zen, Jainkoaren gizonak agindu bezala, eta legenarra
desagertu eta haurtxoarena bezain garbi gelditu zitzaion haragia.

Orduan, Jainkoaren gizonagana itzuli zen bere lagun-talde
osoarekin eta, haren aurrean zutik, esan zion: «Orain badakit ez dela
munduan Jainkorik Israelena baizik. Otoi, onar ezazu zerbitzari
honen esku-erakutsia». Eliseok erantzun zion: «Ala Jauna, zerbitzari
nauena! Ez dut ezer hartuko». Naamanek hartzeko eta hartzeko esan
arren, Eliseok ez zuen hartu nahi izan.

Orduan, Naamanek: «Ezezkoan zaudenez gero, utz iezaiozu,
bederen, zeure zerbitzari honi, bi mandok eraman dezaketen lurra
hartzen; gaurtik aurrera ez baitio zure zerbitzariak erre-oparirik eta
sakrifiziorik inolako jainkori eskainiko, Jaunari izan ezik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3ab. 3cd-4)

- ℣. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **eskuinak**,
bere beso **santuak**. ℟.
- ℣. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **aurrean**.
Ez da ahaztu bere mait**tasunaz**,
Israel herriari dion leial**tasunaz**. ℟.
- ℣. Munduko bazter guztiek ikusi dute
gure Jainkoaren garaipena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **oso**a,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soinua**. ℟.

Bigarren irakurgaia (2 *Tm* 2, 8-13)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Izan gogoan Jesu Kristo, Daviden jatorritik sortua, hilen artetik piztua. Hau da nik irakasten dudana Berri Ona eta honengatik nago neketan, gaizkile bezala katez lotua; baina Jainkoaren hitza ez dago katez lotua. Horregatik, dena jasaten dut

Jainkoak aukeratu dituenen onerako, horiek ere Kristo Jesusek ematen duen salbamena eta betiko aintza irits ditzaten.

Sinesgarria da adierazpen hau:

Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara;
harekin sufritzen badugu, harekin izango gara errege;
hura ukatzen badugu, hark ere ukatuko gaitu;
gu leialak ez bagara ere, hark leial dirau,
ez baitezake bere burua ukatu.

Aleluia (1 Ts 5, 18)



✠. Eman eskerrak beti,
horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak
Kristo Jesusengan. ✠.

Ebanjelioa (Lk 17, 11-19)

Homiliarako argibideak

0.- JAUNA, ERRUKI ZAKIZKIGU!

- Legenarraren gaixotasunak 182.815 kasu berri izan ditu 2023an, aurreko urtean baino % 5 gehiago, Fontilleseko Fundazioaren arabera.
- Egun erantzun egokia ematen zaio azala eta nerbioak harrapatzen dituen gaixotasun larria da. Baina, Jesusen garaian, ulertzeko gai ez ziren hainbat gaixotasunen artean, zerutik bidalitako zigorra bezala hartzen zuten.

- Gaixotasun hori pairatzen zutenak Jainkoaren zigorra jasaten zuten eta, honekin batera, elkarte eta gizarte osoaren bazterketa krudela. Elkartearen bizitza libratzeko gaixoak urundu eta apartatzen zituzten inongo gupidarik gabe.
- Hau dela eta, “urruti gelditurik”, urrun eta aparte zeudelako, eskatzen die hamar legenardunek mesedea, miraria, hurbiltzea, sendatzea: “erruki zakizkigu!”.
- Nazareteko Jesus inor ez bezala hurbiltzen da gizartea eta erlijioak berak baztertu dituen pertsonengana. Erlijioak justifikatzen zuen marjinazioa Jesusek ez du onartzen eta, hare gehiago, eurengana hurbildu eta sendatu egiten ditu adieraziz ulertzeko moduan: ez da hau Jaunak zuretzat nahi duena.

1.- JAINKOAREN HITZA EZ DAGO KATEZ LOTUA

- Bi mila urte ondoren hau da guk jaso dugun irakaspena eta munduko okerrak zuzentzeko bidea, justiziaren bidea, Jaunaren aldarria. Hau da igandero irakatsi nahi dugun eskola, baina zenbaitetan bide erdian gelditzen garen asmoa.
- Oker zenbaitetan, baina beste askotan on eginez, kristau elkarteak “Jainkoaren hitz ez dagoela katez lotua” adierazi nahi dugu. Ez gara, behar bada, garai bateko autoritatearen iparrorratz bakarra, baina ez gara gutxiago Jesusen eskolan ari garenok.
- Elizak bere apaltasunean eskaintzen dituen besoak ez dute mundu honetako desoreka erabat konpontzen. Baina, gure parrokietak Caritaseko harreretatik hasi eta, elizako, nahiz parrokiako atea ireki bezain pronto, harrera egiten zaien premiadun guztiei eskaintzen diegu Jesusek eskaintzen digun sendabidea. Gure baliabideak ez dira gure barne zerbitzurako bakarrik. Duguna eskaintzen dugu munduaren onerako.

2.- NON DIRA BESTE BEDERATZIAK?

- Hamar legenardunak sendatu eta bakarra esker onez itzultzea mundu honetako adibide argia da. Zenbatetan ez zaigu guri ere halakorik gertatu?
- Baina, ona egin behar da eta on egiten jarraitu behar dugu bueltarik izango ez duen esker onaren zain egon gabe.
- Ez al gara gu geu ere bizi musutruk, ez al zaigu bizitza bera egunero ematen eta ez dugu behar adineko esker oneko otoitzik egiten Jaun Onari?
- Eukaristia da Jaunari eskerrak emateko une eta gun e aproposa. Bihotz bihotzetik. Eskerrik asko, Jauna, bihotz bihotzetik kantatuz barnetik kanpora doan apaltasunaren abestia egiten dugu, esker onean bizitzeko ariketa etengabea.
- Jesusek sendatutako legenardun bakarra bueltan etorri dela adierazten duen kexua guri ere zuzentzen zaigu gaurkoan. Guk ere badugu zer eskertu, goizero ematen zaigun argia eskertzeko tarte hartu behar genuke.
- Eta, apalik eta esker onez, Jaunari adierazi: sinesmenak salbatzen gaitu. Eskerrik asko, Jauna, bihotz bihotzetik!

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunarenganako uste onez beterik egigun otoitz:

- Kristau izateagatik sufritzen dutenek izan dezatela Ebanjelioarekin leial izatearen pozak ematen duen barne-bakea. Eska diezaigun Jaunari.
- Nazioetako arduradunek izan dezatela egiazaletasuna eta justizia, denon ondasunak zaindu eta banatzerakoan. Eska diezaigun Jaunari.
- Lurra landuz bizi direnek izan dezatela bere lanaren fruituak egoki jaso eta banatzeko bidea. Eska diezaigun Jaunari.

—Igandea ospatzera biltzen garenok izan dezagula geroaren gogoz, oraina Jainkoarekin bat eginda bizitzeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

Oraingo eta geroko bizitzaren sorburu zaren Jainkoa entzun Zure Elizaren otoitzak eta egizu ez dezagula gorputzeko osasuna bakarrik bilatu; igande honetan bildu garenok gora zaitzagula fedearen dohainagatik eta Eliza osoa izan dadila Kristogan ari duzun salbamen egintzaren testigu. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskaintzak; egizu, fedez eta maitasunez ospatzen dugun Eukaristia honek eraman gaitzala zeruko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Gutziz ahaltsu zarenez, Jauna, apalik eskatzen dizugu, zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok parte izan dezagula jainkozko zure izatean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 19an
URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA

Domund

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

«Herrien arteko itxaropen misiolariak» dio gaur ospatzen dugun DOMUND igandearen goiburuak. Itxaropenaren mezulari eta eraikitzaile izan behar dugula gogoratzen zaigu kristauoi, bataiatuon elkarteari, Elizari, alegia. Kristoren urratsak jarraitzea da hori.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

- Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
egizu, gure gogoa Zuri emana egon dadila beti,
Zu, Jaun handi hori, bihotz leialez eta garbiz zerbitza zaitzagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Otoitza, hau da, Jainkoarekin harreman bizia izatea beharrezkoa da. Fedean irautea, konfidantzaz bizitzea da, Jainkoarekin bat eginda, bere argitan, bere Hitza entzunez. Jaso dezagun arretaz bere mezu salbagarria.

Lehenengo irakurgaia (Ir 17, 8-13)

Irteera liburutik

Egun haietan, amalektarrek israeldarrei eraso zieten Refidimen. Orduan, Moisesek esan zion Josueri: «Aukeratu zenbait gizon eta atera amalektarren kontra borrokara. Bihar muinoaren gainean zutik egongo naiz ni, Jainkoaren makila eskuan».

Moisesek esan bezala egin zuen Josuek eta amalektarren kontra borrokari ekin zion. Bitartean, Moises, Aaron eta Hur muino gainera igo ziren. Moisesek besoei goian eusten zienean, israeldarrak ziren garaile; behera erortzen zitzaizkionean, ordea, amalektarrak.

Moisesi besoak nekatu zitzaizkionean, harri bat hartu eta azpian ipini zioten, bertan eser zedin. Aaronek eta Hur-ek haren besoei eutsi zieten, alde banatatik. Honela, Moisesen besoek tinko iraun zuten, eguzkia sartu arte. Eta Josuek amalektarrak garaitu zituen eta ezpataz suntsitu.

Erantzun-salmoa (*Sal* 121 [120], 1-2. 3-4. 5-6. 7-8)

Ze- ru ta lu- rren E - gi - le - a, du - gu la-gun

ta zain - tzai - le - a.

- ✧. Mendietara ditut jasotzen **begiok**:
nondik etorriko ote zait **laguntza**?
Laguntza Jaunagandik da**torkit**,
zeru-lurak egin zituen ha**rengandik**. ✧.
- ✧. Jaunak ez dizu erortzen **utzik**o,
zure zaintzailea ez **dago** lo.
Ez da inoiz lo **egoten**
Israelen zaint**zaile**a. ✧.
- ✧. Jauna duzu zaintzaile, Jauna **itzalpe**,
alboan du**zu** beti.
Ez dizu gaitzik egingo eguzkiak **egunez**,
ezta ilargiak **ere** gauetz. ✧.
- ✧. Jaunak zainduko zaitu gaitz guz**titik**,
zainduko du zure **bizia**.
Jaunak zainduko ditu zure ibilera guz**tiak**
oraindanik bet**idaino**. ✧.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 3, 14 – 4, 2)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Iraun sendo, ikasi eta sinetsi duzun guztian; hartu gogoan norengandik ikasia duzun eta Liburu Santuak umetandik ezagutzen dituzula. Liburu Santuek eman diezazukete, Kristo Jesusenganako sinesmenaren bidez, salbamenera daraman jakinduria. Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da, eta irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria; horrela, Jainkoaren gizona guztiz hornitua gertatzen da eta edozein eginbehar onetarako prest.

Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: hots egin Jainkoaren hitza; ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta aholkatu, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz.

Aleluia (Hb 4, 12a. d)

- ⚔. Bizia da Jainkoaren hitza,
bizia eta eraginkorra,
eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. ⚔.

Ebanjelioa (Lk 18, 1-8)

Homiliarako argibideak (*Ikus Aita Santuaren mezua*)

0.- ETENGABE ESKATU

- Gutako bakoitzak ondo asko ezagutzen bere otoitz isila, intimotasunean Jaunari zuzendutako eskaera apala.
- Aspaldi da bikote batekin hizketan ari nintzela otoitzari buruz. Fededun sentitzen ziren, baina euren eguneroko bizitza Elizatik aparte bizi zuten, igandeko eukaristiara joateko ohitura ahaztuta zuten eta alabak Lehen Jaunartzea egin zuenetik ez ziren elizara bueltatu, tarteka hileta ospakizunen batean parte hartu arren.
- Baina, bazuten ezkutuko, adierazi gabeko ezusteko ohitura bat: gauero, ohera joatean eta bere bikoteak jakin gabe, txikitatik ikasitako otoitz apal hura bakarka, isilean egiten zuten. Txikitan kristau ikasbidean ikasitako otoitz haiek bata bestearen segidan esaten zituzten isilka Jaunari zuzenduz.
- Ustekabean, euren bihotz barnean, otoitzaren altxorra gorde zuten elkarri ezer esan gabe!.
- Etengabe eskatzen jarraitzen dugu eta etengabe otoitz egin behar digula eskatzen digu gaurko ebanjelioan Jesusek.

1.- JAINKOAK ZAPALDUEN GARRASIA ENTZUTEN DU

- Hutsala eta alferrikakoa iruditu arren bakarkako eta elkarteko otoitzaren indarrak balio handia du Jaunaren aurrean.
- Batetik, gure ezina adierazten duelako, gure txikitasuna eta hauskortasuna. Jaunaren aurrean oso bistako izaten da gure ahulezia, besteen aurrean guk ezkutatu eta disimulatu arren.
- Gaurko ebanjelioan etengabe eskatzearen indarra aldarrikatzen dugu eta, bestetik, Jainkoa ez dela entzungor gure eskariei, gure berri ondo asko jakin arren, otoitzaren garrasi isil nahiz ozenak bazterrak astintzen dituela, ingurukoon axolagabekeria horretatik irteten laguntzen digula.

- Jainkoak zapalduen garrasia entzuten du, ez du guk bezala bestaldera begiratzen. Aurrez-aurre begiratu eta samurtasunez entzuten dituela mundu honetako sufritzen dutenen oihua.
- Gaurko ebanjelioko epailearen temakeria samurtu bazuen alargunaren matrakak, nola ez du entzungo maite gaituen Jaunari zuzendutako erreguak?

2.- OTOITZAREN INDAR EZKUTUA

- Horregatik egin behar dugu etengabe otoitz, isilka nahiz elkartean. Urtetan bakearen erregua egin genuen. Zenbat aldiz igo ginen otoitzean Arantzazura bakea eskatuz?
- Ez al genuen zenbaitetan sentitu egiten ari ginena alferrikako zela? Ez al ziguten esaten gure ahalegina antzua zela?
- Otoitzaren indar ezkutua sentitu behar dugu eta horretarako eguneroko etxeko, nahiz natura erdiko txoko batean Jaunarekin hizketan aritzeko ohitura hartu, berreskuratu edota aurkitu.
- Elkar maite zuten bikote hark ustekabean, isilean, bata bestearen alde eskatzen zuen Jaun berari. Gizonaren Semea etortzean, aurkituko ote du halako sinesmenik?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak bazterten dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Moisez Zure zerbitzariaren bidez garaipena eman zenion zeure herriari, ikus otoitzean bildua dagoen Eliza eta egizu Israel berriak aurrera egin dezala beti gaitz guztiak gaindituz, Zure zain bizi direnen alde egingo duzun ordua iritsi artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratzuz.

Oparigaien gainekoa

Dohain hauek bihotz zabalez eskaintzean, Jauna, egizu, garbi egiten gaituen zure grazia lagun ospatzen ari garen sakramentuak bihotz-berri gaitzala. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, eukaristi ospakizun honek zeruko bizia gozarazi digu alde zurretik; izan dezagula beraren laguntza lur honetan zure ondasunak gozatzeko, baita argia ere betikoak maitatzeko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 26an
URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Ez da hau santuen mahaia, hobeak izan nahi dugunona baizik. Hori da Jubileua: itxaropenean bidea egitea Jainkoarekiko batasunerako, santutasunerako, alegia.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatarari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
sendotu gudan sinesmena, esperantza eta maitasuna;
eta egizu, hitzematzen diguzuna lortu ahal izateko,
maita ditzagula Zuk aginduak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizartearen begietan ezer gutxi balio dutenak, baztertuak eta behartsuak: horiek ditu gogokoen Jainkoak. Barnera dezagun bere Hitza, bere antzeko egin gaitzan.

Lehenengo irakurgaia (*Sir* 35, 15b-17. 20-22a [gr. 12-14. 16-18])

Siraken liburutik

Epalea da Jauna, eta ez du harengan eraginik inoren izenak: ez du alderdikierarik egiten behartsuaren contra eta entzuten du zapalduaren eskaria. Ez du umezurtzaren erregua mespretxatzen, ezta kexati doakion alarguna ere.

Jaunak gogo onez hartzen du bera zerbitzatzen duena, eta honen eskaria zeruraino iristen da. Apalaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu eta ez du onik bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen, Goi-goikoak esku hartu eta errugabeei justizia egin arte.

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33] 33, 2-3. 17-18. 19 eta 23)



Txas-ta e-za-zu - e ta i - kus zein sa-mur den Jau-na.

✠. Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna,
nire ahoan beti haren gorespena.

Harro nago **Jaunarekin**,
entzun bezate apalek eta **poztu** bitez. **℟**.

- ℣. Gaizkileen aurka Jaunaren **aurpegia**,
lurretik ezabatzeko haien **oroitzapena**.
Deiadar egiten dute zintzoek, eta **Jaunak** entzun,
larrialdi guztietatik **libratzen** ditu. **℟**.
- ℣. Hurbil zaie Jauna bi**hotz**-hautsiei,
salbatzen ditu barne-**eroriak**.
Jaunak askatzen du bere zerbitzari**en** bizia,
harengan babesten direnek ez dute zigor**rik** izango. **℟**.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 4, 6-8. 16-17)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako bigarren gutunetik

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Aleluia (2 Ko 5, 19a. c)

℣. Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen,
eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. ℟.

Ebanjelioa (Lk 18, 9-14)**Homiliarako argibideak****0.- ZERGALARIA ETA FARISEUA**

- Zergalariak eta fariseuak kontrajarrian dauden bi jarrera espiritual adierazten digu gaurko ebanjelioak. Otoitz egiteko bi era, sinesteko bi modu, Jaunarekiko harremanaren bi alde. Bat alboratu izango da, bestea, berriz, goraipatua.
- Kontua da fariseua bere buruarekin asebate bizi dela, bere burua zuzentzat hartzen du, ez dio Jaunari ezer eskatzen, ez du Jaunaren beharrik, antza. Tente ageri da Jaunaren aurrean, bere buruaz ziur eta Jaunari bere ekintza onak aurkezten dizkio. Badirudi Jauna dela fariseuari eskerrak eman behar dizkiona leiala eta zuzena delako. Harrokeriak harrapatu du bere bihotza eta ez da besteak bezala sentitzen, lapur edo gaizkile. Jaunari eskerrak ematen dizkio horiek bezalakoa ez delako. Ustetan, behintzat.
- Zergalaria - hala dio ebanjelioak- "urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen". Ez du itxuraz Jaunari zer eskainirik, bere lotsa eta hauskortasuna ez bada. Bere otoitza bere izaera behartsuaren argazkia da. Zergalari lotsatiak salbamena eta barkamena eskatzen ditu. Bere eskaerak Jaunaren errukian jarri du konfiantza eta eskerrak emateko tarterik ez duela dirudi.

1.- OTOITZ EGITEKO BI ERA

- Parabolaren muina iskanbilatsua izan zen orduko fededunentzat. Oraingo kristauoi halako zirrara ere sortu beharko gintuzke otoitz egiteko bi era hauetan geure buruaren argazkia ikusteko gai bagara.
- Behartsuak gara Jaunaren beharrean sentitzen garelako. Geure buruarekin konforme bizi bagara eta, harrokeria puntu horrekin, oilarra bezala aurkezten bagara Jaunaren aurrean, ingurukoak engainatu ditzakegu, baina Jauna ez.
- Otoitz egiteko bi era hauek orduko eta oraingo kristau elkartearentzat abisu larria dira benetako otoitza nolakoa izan behar den eta nolakoa den ikusarazteko.
- Egun, gure baitan, zenbaitetan txiki eta beste batzuetan harro, fariseua dabil bueltaka. Jesusen garaiko fariseua bere buruarekin harro sentitzen zen eta hala adierazten besteen eta Jaunaren aurrean. Fariseuak epaitzeko joera izaten du, bereizi eta kondenatzeko.
- Erlijioaren edota egungo ideologiaren izenean epaitu eta kondenatzen dituzten gizon-emakumeak nonahi ageri dira. Bera da egiaren jabe, bera inor baino hobeto dago informatua, egunkarietako gezurrak egia bihurtzen ditu. Inongo injustiziaren konplize ez da sentitzen. Bera da garbia, bera garden.

2.- APALTASUNA

- Apaltasuna da bide bakarra Jaunaren aurrean otoitzean hasteko, Jaunarekin elkarrizketan aritzeko. Lehenbizi Jaunari entzun eta isiltasun handi eta sakon hori ez dezagula gure hitz zaparradez estali.
- Otoitzerako, lehenbiziko urratsa isiltasuna da eta Jaunari entzuten hasteko jarrera apala.

- Jaunak ondo asko daki gure miserien berri. Hauek ez dira gure hitz ponposo eta harroekin estaltzen. Jaunaren aurrean jartzeak ez du Jauna bera aldatzea helburu, gure bihotz barrenetik hasten den zirrara sortzea, Jainkoaren adiskidetu eta etxera itzultzea.
- Ba ote da gauza ederragorik Jaunaren aurrean zintzo agertu eta bere errukiaren besarkada sentitzea baino?

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunari egindako otoitzak Berak bihotz onez entzuten dituela jakinik, egigun otoitz apaltasunez:

- Jaunak indarra eta argitasuna eman diezaien Fernando gure gotzainari eta Elizako artzain guztiei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Neurrigabeko ezberdintasunak gaingidurik, herrietako arduradunak denon ongizatearen alde saia daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sufritzen duten guztiek kristau-elkartearen bidez presente egiten den Jaunaren indarra eta laguntza izan dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bildu garenok eta gure etxeko eta adiskide guztiok, itxaropenez eta elkarri on eginez bizi gaitezten. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk ez diozu begiratzen gizakien ospeari, baizik eta behartsuen alde diharduzu beti; begira iezaguzu zergalariaren antzera zugana apal agertu nahi dugun Zure zerbitzarioi eta egizu Bera bezala beheraturik Zure erreinuan goratuak izan gaitzelaz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz ona,
begira Zuri, Jaun handi horri, ekarri dizkizugun dohain hauei
eta egizu, gure zerbitzuaren
adierazpen den eskaintza hau irits dadila Zugana
eta gorets dezala zure izena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, gure fedearen sakramentu honek
egin dezala gugan berak adierazten duena,
orain irudiz egiten duguna
gero egiaz eta bete-betean har dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 1ean **SANTU GUZTIEN FESTABURUA**

Agurra

Santutasunera dei egiten digun Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Santu guztien festaburu honek poza eta itxaropena sortzen ditu gugan. Poza: gure senide ugari bizitza honetan Kristorekin bat egin ondoren orain zeruko zorionean bizi direlako. Itxaropena: haien ereduarekin eta laguntzarekin guk ere Kristoren bide hori bera egin dezakegulako eta santuen zorionera iritsi. Santuekin bizi dugun batasun-misterio hori Eukaristian era berezian agertzen dela jakinik ospatzen dugu esker onezko batzar hau.

Damu-otoitza

Senideok: itxaropenez beterik jo dezagun Kristorengana eta eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, Zu zara Jainkoaren Santua. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk santu izatera deitzen gaituzu. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara santu guztien saria. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santu Guztien merezimenduak
egun berean ospatzea ematen diguzu;
horrenbeste laguntzaile dugunez gero,
emaguzu oparo, eskatzen dizugun errukia eta barkamena.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Zoriontsu nahi gaitu Jesusek, garaileen taldeko, Jainkoaren maitasuna ezagutu eta bizi dutenenen batzarkide. Horretarako gurutzea da bidea, eskaintza da modua, zerbitzua da baldintza.

Lehenengo irakurgaia (*Ap 7, 2-4. 9-14*)

Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamen».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Erantzun-salmoa (Sal 24 [23], 1-2. 3-4b. 5-6)

Kan - ta Jau - na - ri jai ho - ne - tan, san - tu guz - ti -

en o - ho - re - tan.

- ✧. Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena,
mundua eta bertan bizi direnak,
hark ezarri baitu itsasoen gainean,
hark finkatu lur azpiko ibaien gainean. ✧.
- ✧. Jaunaren mendira nor igoko?
Haren toki santuan nor egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituena,
sasijainkoetara jotzen ez duena. ✧.
- ✧. Horrelakoa bedeinkatuko du Jaunak,
justizia egingo dio Jainko salbatzaileak.
Hau da haren bila saiatzen den gizaldia,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila dabilena. ✧.

Bigarren irakurgaia (1 Jn 3, 1-3)

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.

Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu.

Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezalaitxaropen hau duen guztia garbitu egiten da, Hura garbia den bezala.

Aleluia (Mt 11, 28)

✠. Zatozte Nigana nekatu eta zamatu guztiok,
eta Nik arinduko zaituztet, dio Jaunak. ✠.

Ebanjelioa (Mt 5, 1-12a)**Homiliarako argibideak****0.- ZURE AURPEGI BILA GABILTZANOK**

- Bai zaila dela Jainkoari bizkarra emanda bizitza osoa aurrera eramatea. Jaiotza eta heriotza dira gizakioi halako astindu berezia

ematen diguna eta nondik gatozen eta nora goazen galdezka jartzen gaituzte. Heriotzak galdera sortzen du eta gaurko festa handi honek gure hasiera eta gure helmuga Jaunarengan dagoela adierazi nahi digu.

- Modu batera edo bestera, gaurko 24. salmoarekin batera Jaunaren aurpegiaren bila gabiltzala aitortu behar genuke. Jauna da munduaren sortzaile eta gu hala moduko administrari eskasak besterik ez gara. Bide hau eginez goaz aurrera Jaun Onarekin betirako topo egin arte.
- Baina, hemengo bidea eta ibilbidea ez da beti izaten laua. Gaurko zoriontasunak aldarrikatzen ditugunen zerrenda luze horretan euren bizitza malkarrean egin dutenak oroitzen ditugu. Guk oroitzen eta Jaunak bedeinkatzen.
- Hori bai, ez du Jaunak behartsua bedeinkatzen, premian dagoenari bizkarra emanez eta egoera hori sortzen duenari saria eta arrazoia ematen. Zoriontasunak egoerari buelta emateko astindu bat dira, Jaunak lehen urratsa emateko sortzen duen iraultza baten lehen txinparta.
- Jainkoa ez da giza sufrimenduarekiko bihozgabea. Zorionekoak dira behartsuak, atsekabetuak, negarrez daudenak... ez egoera hori Jaunak bedeinkatzen duelako, egoera tamalgarri horretan, bakardade krudela horretan bakarrik ez daudelako, Jauna bera dutelako bideko lagun.

1.- ZORIONEKOAK GARA

- Jainkoak gutako bakoitzarentzat nahi duena horixe da: zoriontsu izan gaitezela, bizitzan zorte on izan dezagula, oheratzean eskerrak emateko eta egunaren errepaso polita egiteko gai izan gaitezela. Hori da Jaunak niretzat nahi duena.
- Baina, ez da beti hala gertatzen. Sortze dira, nahitaez, koskak, astinduak, zauriak eta bihotza sakonetik astintzen dituen etenak.

- Hor, zauri horretan, haustura mingarri horretan ez gaude bakarrik. Itxurazko amaierarik gabeko zulo horretatik ateratzeko indarra Jaunak eskaintzen digun zoriontasun bidea da.
- Baina, ez pentsa. Ezin diogu Jaunari guk konpondu nahi ez ditugun kontuak bere gain utzi. Zoriontasunen bide horretan Jaunaren bultzada sentitu, konprometitu eta geu izan behar dugu bide horien suspertzaile eta eragile.

2.- POZTU GAITEZEN ETA ALAITU

- Zoriontasunak gaur egungo egoera gris eta zenbaitetan ilun honetan Jesusen Berri Onaren oihua dira oraindik. Ezin dugu Jesusek agindutako eta eragindako bide horretan etsi, zoriontasunen mezu iraultzaileak irabazleei garaipena eman ez diezaien eta betiko galtzaileek negarrez jarrai dezaten.
- Zenbaitentzat egungo egoera ez du bueltarik eta ezer egiteko giltzarik ez dugula uste izaten dute. Egoera irauli egin behar da, Jesus Jaunak eskatzen digun oreka sortu behar da.
- Baina, horretarako goikoak behera jaitsi eta behekoei tokia egin beharko zaie, derrigorrez. Orduan, etxeko lanak egin ondoren, esan genezake: “poztu zaitezte eta alaitu”.

Jainkoaren herriaren otoitza

Beren bizialdian lurraren gatz eta argi izan ziren santu guztien laguntzarekin zuzen diezazkiogun gure otoitzak Jaunari:

- Jaunak sor ditzala gaur ere eredugarri izango zaizkigun gizon-emakume santuak, Jaunarekin batuago eta senideekin eskuzabalago bizitzen ikas dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Ebanjelioaren berri ona ezagutzen ez dutenek, jaso dezaten santuen testigantzaz bere bizitza gozatuko duen argia. Eska diezaiogun Jaunari.

—Bere bizitzan nekeak pairatu zituzten santuen ereduak, lagun diezaiela sufritzen duten guztiei kementsu irauten eta bizimodu hobearen alde lehiatzen. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gaur santu guztiak ospatzera bildu garenok, bil gaitezela egun batean gure senide hildako guztiekin Kristoren aintzazko erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Aita ona, Zure erreinuan aintzaz janzten dituzu Senarraren zain erne bizi direnak; entzun gure otoitzak eta egizu kriseiluak pizturik zaindu ditzagula Zure Semearen otordura sartzeko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Atsegin bekizkizu, Jauna,
Santu Guztien omenez dakarzkizugun oparigaiak;
eta egizu, Zugan hilezkor aitortzen ditugunok
gure salbamenaz arduratuak senti ditzagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Oi Jainko,
Santu Guztien jaiegun honetan,
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;
eta zure grazia eskatzen dizugu,
zeure maitasun beteaz santutasun osora eraman gaitzazun
eta, lurrean erromes goazenon mahai santu honetatik,
zeruan prestatua duzun mahai santura igaro gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 2an **HILDAKO FEDEDUNEN OROIPENA**

Agurra

Heriotza garaiturik hilen artetik piztu zen Kristo izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Hildako senideak gogoan ditu gaur Eliza osoak. Bada, San Agustinen otoitz bat gaur gogoan duguna: «Jauna ez dizut aurpegiatzen senide hau kendu izana; baizik eta eskerrak ematen dizkizut eman zenidalako». Gu ere esker onez, gu ere erromes garela gogoratuz eta hildakoen aldeko otoitzak on egiten digula jabetuz Eukaristia ospatzera gatoz.

Damu-otoitza

Senideok, apaltasunez beterik jo dezagun errukiaren iturrira eta eska dezagun gure bekatu guztien barkamena:

—Aitortzen diot...

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

—Erruki, Jauna... Kristo, erruki... Erruki, Jauna...

Otoitza

Entzun, Jauna, bihotz onez, gure eskariak
eta sendotu hilen artetik piztua den
zure Semeagan dugun fedea,
hildako gure senideak piztuko diren itxaropena ere
gugan sendoagoa izan dadin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Edota:

Fededunen zoriona eta zintzoen bizia zaren Jainkoa,
Zuk salbatu gaituzu zeure Semearen heriotzaz eta piztueraz; erruki
zaitez hildako gure senideez
eta egizu, piztueraren misterioa sinetsi dutenez gero,
goza dezatela betiko zorionaren poza.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Edota:

Oi Jainko, zeure Seme bakarra, heriotza garaiturik,
zeruko aintzara sarrarazi zenuen;
egizu, hildako gure senideek ere,
bizitza honetako izate hilkorra garaiturik,
betieran ikus zaitzatela Zu,
beren egile eta salbatzaile hori.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Irakurgaiak *Hainbat irakurgai proposatzen dira egun honetarako
Irakurgaiak liburuan. Hileta-mezarako ematen
direnetatik ere har daitezke. Hemen, erantzun salmoa
eta aleluia proposatzen ditugu:*

Erantzun-salmoa (*Sal* 27 [26], 1 eta 4abcd)§ *Denek**Bukaera*

R/. Jau-na-gan hi-lak bai do-ha - tsu, ha-ren au-rre - an zo-ri-on - tsu!

BatekV/. Jau - na dut ar - gi, Jau - na o - sa - sun: nork ni i - zu - tu?
Gau - za ba - kar bat Jau - na - ri di - ot nahi es - ka - tu:Jau - na dut la - gun, nork be - har nau ni i - ka - ra - tu.
Bi - zi nai - ze - no be - re e - txe - an na - za - la har - tu.**Aleluia** (*Mt* 25, 34)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



¶. Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok;
hartzazue munduaren sortzetik
zuentzat prestaturik dagoen erreinua. ¶.

Homiliarako argibideak**0.- HILDAKOAK OROITU**

- Legezkoa da gure aurretik Aitaren Etxera joan zirenak oroitzea. Legezkoa da fededunok amesten dugun zeruaren atarian gaur fedea ospatzeko biltzea.

- Aurtengoan igandea tokatu zaigu eta, atzokoarekin lotuta dagoenez gaurko ospakizuna, Santu Guztien festa eta hildako fededunen oroipena bat egiten ditugu, nahigabe.
- Atzo hilerrira joan gara, ziurrenik, gure arbasoak oroitu eta haien hilobien aurrean otoitz egitera. Atzokoa eta gaurkoa loturik daude, atzokoan zorientasunen bidea erakusten zigutenak gaur oroitzen ditugulako, atzokoei esker gaur gu bizi garelako. Iraganeko arbasoen lanari esker egun guk etxea, babesak eta maitasuna ditugulako.
- Hiletak dira, ziurrenik, gaur egun gure elkarteak gehien biltzen dituen ospakizuna. Norbait hiltzen denean eta kristau elkartearen baitan familiak agurra gure etxean ospatzeko eskabidea egiten digunean, dena martxan jartzen da: irakurle eta ohargile, eliza txukundu edota herriari ohartaraziz herriko norbait hil dela kanpaiak jotzen dituenak, apaiza eta korua edo organojolea. Dena martxan agurra egiteko. Dena prest esperantzari atea irekitzeko. Denak lanean hildakoa oroitu eta Jesusek eskaintzen digun piztueraren atea erakusteko.

1.- AITAREN ETXEA

- Hileta egun batean, gaurkoan hildako fededun guztiak oroitzen ditugun moduan, ateak irekitzen ditugu Jainko Aitaren etxeko bidea erakusteko.
- Ez da gure asmoa izaten hildakoaren goralpena egitea bakarrik. Ez da hildakoa oroitzeko modu bakarra bere egindako on guztiak goraiatzeko. Ez da gu egiten duguna herriko plaza batean egin zitekeen omenaldia.
- Guk Jaunak piztuko gaituela hots egiten dugu, Aitak eman dizkigunak ez direla galduko, egun sarri ikusten dugun moduan “lurrak goxo har zaitzala” ez dela guretzat nahikoa, zeruan Jainko Aita eta gure aurreko arbasoak zain baditugu.

- Ez gara hemen betirako, ondo asko dakigu. Baina, hemengoa ustelkorra bada, hemengoa noizbait amaituko dela badakigu, “Jaunaren aurrean bizidunen lurraldean ibiliko naizela” sinesten dugu -gaurko 116. salmoak dioen moduan-.

2.- MAITASUNA GUREGAN

- Jesusen promesa beteko dela sinesten dugu, gure hildakoengan bete dela aitortzen dugu gaur: “Zuk Niri didazun maitasuna hauengan izan dadin”.
- Maitasunetik sortu ginela aitortzen dugunok hemengo altxorra galduko ez dela ozen eta garbi esan nahi dugu, gure iraunkortasuna ez dela egongo maite gaituztenen memoriaren menpe bakarrik.
- Ezagutzen dugun honek, gizakion gorputz eta anima honek iraungo duela han, beste modu batean.
- Ez dira hitz hauek heriotzaren zartada samurtu nahi duten hitzak bakarrik. Zenbaitentzat heriotza jasan ezina den gertaera da, betirako haustura, zulo beltz eta iluna, erremediorik gabe patua.
- Guk sinesten dugu Jaunak piztuko gaituela, Berarekin nahi gaituela, Jesusek agindutako maitasunak guregan iraungo duela, bizitzeko sortuak izan ginela. Jaunaren bakean bezate atsedean gure hildakoak!

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz konfiantzaz beterik errukiaren Aitari eta eska diezaiogun Jaunagan hil diren gure senideen betiko atsedena:

—Kristok, bere heriotzaz heriotza suntsitu eta bere piztueraz mundu guztiari bizia eman zionak, eman diezaiela argia eta betiko zoriona gure anai-arreba hildakoei. Eska diezaiogun Jaunari.

- Kristok, errukiaren maisuak barka diezazkiela hildakoei, gogapen, hitz eta egitez eta egin beharrak ez eginez egin zituzten bekatu guztiak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, Eukaristiako ogiaz eta Liburu Santuko hitzaz janaritzen gaituenak, sendo dezan Eliza santua, tristeziaren eta ezin-ulertuaren kateekin loturik daudenentzat poz eta argi izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Kristok, bere mahaiaren inguruan bildu gaituenak, bil gaitzala gero ere, hildako zintzo guztiekin batean bere erreinuko mahai santuan, gizaldi eta gizaldietan Jainkoa ikusi eta gores dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun gure otoitzak, Jainko Jauna, zabaldu Zure Erreinuko ateak gure senide hildakoei, Kristo Jaunaren piztuera aintzatsuan parte izan dezaten betiko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Begira Jauna, begi onez, gure eskaintza honi,
hildako fededun guztiak zeruko aintzan onar ditzazun
bere maitasun-misterioan bat egiten gaituen zure Semearekin.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Edota:

Jainko ahalguztidun errukitsua,
sakrifizio honetan eskaintzen den Kristoren odolaz
ken itzazu hildako zure zerbitzarien bekatuak,
eta egizu, zure bihotz onak egin ditzala gero eta garbiago
Bataioko uretan garbitu zenituenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edota:

Hartu, bihotz onez, Jauna,
Kristogan lo dauden gure senide guztien alde
egiten dizugun eskaintza;
zure Semearen sakrifizio bakarrari esker
heriotzaren lokarrietatik askaturik,
irits dezatela betiko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Egizu, Jauna, hildako gure senideak
sar daitezela argi eta bake den bizilekura,
haien alde ospatu baitugu pazko-sakramentua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edota:

Gugatik hil eta aintzaz piztu zen
zure Semearen sakramentua harturik,
apalki eskatzen dizugu, Jauna, hildako gure senideen alde:
Kristoren pazko-misterioan garbiturik,
irits dezatela piztuera-egunean zorion betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edota:

Eskaini dizugun sakrifizio honen bidez,
isur ezazu, Jauna, zeure erruki ugaria
hildako gure senideen gainera;
eta Bataioaren grazia eman zenienei
emaiezu betiko zorionaren betea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 9an
LETRANGO ELIZA SAGARATZEAREN URTEMUGA
Elizbarrutiaren eguna

Agurra

Bere Gorputzeko atal egin gaituen Kristo Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Erromako Elizbarrutiko katedrala, Letrango san Joan basilika da. Han dago Aita Santuaren gotzain-aulkia; handik zuzentzen du berak, eta fedean sendotzen, mundu guztiko Eliza. Letrango Elizaren jai hori ospatzen dugu gaur, Erromako elizarekiko batasunean bizi garen munduko kristau guztiok.

Gaur, gainera, Elizbarrutiaren eguna dugu. Elkarrekin, besteei eskainitako eliza bizia lortzen dugu. Egun berezia, gure ahalegin eta jardun guztientzat argitasuna eskatu eta Elizbarrutiaren beharretarako diru-bilketa egiteko.

Damu-otoitza

Gutako bakoitza da Jainkoaren tenplu. Begirunea zor diogu elkarri. Eta egiazko elkarte, guztion batasunak egiten du. Aitor dezagun, ez garela beti bizi hau gogoan izanik eta eska dezagun barkamena.

—Jesus Jauna, sahitsetik ura eta odola isuriz Eliza sortu zenuena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Maria amatzat eman zeniguna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espirituaren dohainez Eliza aberasten duzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, harri biziz eta bereziz eraikitzen duzu
zure aintzaren betiko etxea;
ugaritu zeure Elizari emandako dohainak,
zeruko Jerusalem gero eta handiagoa egiten joan dadin beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Edota:

Elizari zure emazte izena eman diozun Jainkoa,
egizu, zure izenaren zerbitzari izanez,
Zu gurtu eta maita zaitzala zure herriak,
eta Zuri jarrai diezazula,
agindu diozun erreinura, Zuk gidaturik, irits dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko irakurgaiek Jainkoaren tenplu bizia garelako gogorarazten digute: harri biziz eraikitako Eliza, Kristoren gorputza den Eliza santua. Entzun dezagun arretaz, eta bihotz zabalez.

Lehenengo irakurgaia (Ez 47, 1-2. 8-9. 12)

Ezekielen Profezia liburutik

Egun haietan, Jaunaren tenpluko sarrerara eramanez ninduen gizonak. Ura ikusi nuen tenpluko ate azpitik irteten eta ekialdera joaten, tenplua ekialdera begira baitzegoen. Ura tenpluaren eskuinaldetik jaisten zen, aldarearen hegoaldera. Gero, iparraldeko atetik

irtenarazi ninduen, eta kanpotik itzulia eginarazi zidan, ekialdera begira zegoen sarreraraino. Eskuinaldetik zihoan ura isurian.

Gizonak esan zidan: «Ur hau ekialdera doa, Araba haranera jaisten da eta Itsaso Hilean amaitzen. Itsasoratzean, hango ur ustelak ondu egingo ditu. Ibaia helduko den edonon, mota guztietako piztiak biziko dira eta arrain asko izango da; itsasoko urak on bihurtuko dira, eta bizia sortuko du doan toki guztietan.

Ibaiaren bi ertzetan, mota guztietako fruta-arbolak haziko dira; ez zaie historik eroriko, eta etengabe emango dute fruitua, hilero emanaldi bat, santutegitik sortzen den urak ureztatzen baititu. Fruituak janari izango dira, eta hostoak sendagai».

Erantzun-salmoa (Sal 46 [45], 2-3. 5-6. 8-9)



✠. Jainkoa dugu babesleku eta indar, ‘
edozein larrialditan laguntza azkar.
Horregatik ez gara beldur,
nahiz eta lurrak dardara egin
edota mendiak itsas hondorra amildu. ✠.

✠. Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria,
Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.
Jainkoa du erdian, ez dabil koloka,
goiz-goizetik laguntzen dio Jainkoak. ✠.

℣. Jaun ahalguztiduna geurekin dugu,
Jakoben Jainkoa gure **got**orleku!
Zatozte eta ikusi Jauna**ren** egintzak,
lurrean eragin dituen **al**daketak. ℟.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 3, 9c-11. 16-17)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jainkoak eraikitzen duen etxe zarete zuek. Jainkoak eman didan dohainaren arabera, nik oinarria ipini dut, etxegile trebeari dagokionez; baina beste batek eraikitzen du etxea. Ikus beza bakoitzak nola eraikitzen duen. Inork ez dezake ipinia dagoen oinarria besterik ipini; eta oinarri hori Jesu Kristo da.

Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete.

Aleluia (2 Kro 7, 16)



℣. Tenplu hau hautatu eta sagara**tu** dut,
beti nire bizileku izan dadin, di**o** Jaunak. ℟.

Ebanjelioa (Jn 2, 13-22)

Homiliarako argibideak

0.- JAINKOA DUGU BABESLEKU

- Letrango basilika, Salbatzailearen basilika, San Joan Letrangoaren basilika..., Erromako katedrala, «Hiriko eta mundu guztiko eliza guztien ama»..., kristautasuneko elizarik agurgarrienaren izen esanguratsuenak dira, hasiera batean Jesukristo Salbatzaileari eskainia eta ondoren San Joan Bataiatzaileari eta San Joan Ebanjelariari. 324. urtean sagaratua gaurko egunez ospatzen du.
- Letrango basilika Aita Santuaren etxea da, eliza guztien eliza amaren dedikazioa ospatzea Eliza unibertsaleko kristauoi gonbidapena egitea da, fedearen eta maitasunaren batasuna bizi dezagun, harri biziak garelako jabetu gaitezten.
- Atzean utzi dugun udara bero honetan gogoan nuen elizak, irekita daudenak behintzat, babesleku klimatiko zirela. Elizako freskura eta itzala toki gutxietan aurki genezake. Eliza, ermita edo baseliza batek eskaintzen digun bakea eskertzekoa izaten da hots, zarata, zalaparta eta presaka dabilen gizarte honetan.
- Eliza batera iritsi eta Jainkoa eta norberaren arteko intimitate horretan Jainkoa babesleku dugula barneratu dezakegu.

1.- KENDU HORIEK HORTIK!

- Jesusek Jerusalemgo tenpluan egindako portaerak erne jartzen gaitu ezusteko haserrea adierazten duenean. Nola ez ba sutan jarri tenplua, Aitaren etxea azoka-etxe bihurtu zutenean!
- Arrazoi osoz esan zuen orduan “kendu horiek hortik!”. Gure elizek Jainkoarekin topo egiteko gune aproposak izateko sortuak badira, ez al luke gaur ere Jesusek traban dauden beste hainbat gauza paretik kenduko?
- Jaunaren borondatearen aurka joan daitekeen edozer kentzeko beldurik ez genuke izan behar, eliza, tenplua Aitaren etxea izaten jarrai dezan.

- Honetarako ezinbestekoa da elizaren izatearen muinera joatea, gure ospakizunen bihotza zaintzea, “Jauna gorestekoa eta gizakia salbatzeko” diren bitartekoak erabili eta Jesu Kristoren misterio sakon eta bizia ospatzen jarraitzeko.
- Jesusen Berri Ona hots egiten jarraitzen dugu gure elizetan 2000 urte ondoren. Gure tenpluek horretarako sortuak izan ziren, Jesu Kristoren Ebanjelioa hots egiteko. Hori egiten ez badugu, alferrik gabiltza.

1.- GIZAKIEN ONERAKO

- 69. salmoak tinko adierazten digu Jesusen jokabidea ulertzeko: “Zure tenpluaren maiteminak erretzen nau”. Irrikaz eta arduraz zaindu behar ditugu gure arbasoengandik jasotakoa.
- Lau horma eta teilatua duten elizak ez dira ondare artistikoa eta sentimentala bakarrik, fedea ospatu eta Jesu Kristoren irakatsiekin lotzeko dira.
- Halako ondare zabala eusteko gai izango ote garen da eskuartean dugun galdera eta zalantza. Hain gara gutxi gure kristau elkarreetan etorkizuneko bidea ikusteko gai ez garela egun.
- Baina, han edo hemen, atzo edo bihar, Elizaren eginkizuna ez da izango gure teilatua besterik gabe mantentzea. Bizitza, justizia, bakea eta Jesusek ereindako erreinuaren haziak erretzen laguntzea izango da gure erronka. Eta honetarako denen laguntza behar izango dugu, kristau, erakunde eta herritarrok elkarrekin auzolanean opari eman zaigun ondarea txukun eta arduraz eutsi dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Elizako kide gara, Jauna bizi den tenpluko harri bizi. Zuzen diezaiozun gure otoitza Aitari eta eska diezaiozun gizaki guztien alde:

- Bere gotzain duen Leon Aita Santuaren inguruan biltzen den Erromako Elizak Espiritu Santuaren dohainekin aberastuta, mundu zabaleko kristau elkarteak maitasunean zuzentzeko misioa bete dezan. Eska diezaiogun Jaunari
- Gure Elizbarrutiko parrokia eta elkarte guztiak, bere Gotzainarekin eta apaiz eta diakonoekin kristau bizitzaren eredu eta batasunaren legami izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Edukitzearen eta pilatzearen gizartean, miseria eta ezina nozitzen dutenek ezagutu dezaten zeru-lur berrien promesa eta eliza erromasarengan aurki dezaten gero izango denaren irudia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bataioaz Jainkoaren herriko kide garenok, Elizaren kide izateaz arro egon gaitezen beti eta berarengandik jasotako fedea ausardiaz aitor dezagun gizaki guztien aurrean. Eska diezaiogun Jaunari.

Zeru-lurren Jauna, inon hesitu ezina zaren arren, gizakien artean geratu nahi izan duzu era berezian, Zure izenean eraikitako elizetan; entzun gure otoitzak eta emaguzu eskatu dizuguna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Orain egitera goazen diru-bilketa Elizbarrutiaren beharretarako izango da.

Oparigaien gaineko otoitza

Zuri, Jaun handi horri, aurkezten dizugun eskaintza honek irits diezagula Zu leial zerbitzatzeko grazia,
eta eman diezagula betiko zorionaren fruitua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Sakramentuaren dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu zigun Eukaristia honek
handi dezala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Azaroaren 16an

URTEAN ZEHARREKO XXXIII. IGANDEA

Pobreen Mundu Jardunaldia

Agurra

Gure sinemen ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batza honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristau urtearen, liturgi urtearen amaierara gerturatzen ari gara: gaurko ospakizunak erne bizitzeko deia egiten digu, historiaren amaieran Jaunarekin topo egiteko prestatuz.

Gaur, gainera, Eliza osoak Pobreen Mundu Jardunaldia eta Pobreen Jubileua ospatzen du, denei *Jauna gure itxaropena* dela gogoratzera deituz. Behartsuengana behar adina gerturatzen garen are gehiago, Kristoren behartsu izatea geure jarrera bihurtzen ote dugun hausnartzeko egun egokia dugu gaurkoa.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure **b**akea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **o**gi egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **e**maten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko gure Jauna,
 egin gaitzala zure laguntzak beti alai zure zerbitzuan,
 ondasun ororen iturri zaren horri emanak
 bizitzea baita guretzat
 egiazko zorion betea eta iraunkorra.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gehiegi begiratzen diogu lehenari. Eta orainari lotuegi bizi gara, momentuan momentukoa biziz. Etorkizunak ere behar du gure begirada lasaia, begiratu sakona. Jainkoak beteko du, Jainkoarekin izango gara. Gaur dugu horretan hasteko garaia.

Lehenengo irakurgaia (Mt 4, 1-2a)

Malakiasen Profezia liburutik

Begira: «Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. Harro eta gaizkile guztiak lasto izango dira, eta zeharo kiskaliko ditu etortzekoa den egunak; ez die utziko, ez sustrairik, ez abarrik. Baina zuentzat, nire izenari begirune diozuenentzat, eguzkia bezala agertuko da nire justizia, errainuetan osasuna dakarrela».

Erantzun-salmoa (Sal 98 [97], 5-6. 7-8. 9)



Ba - da - tor Jau - na gi - zar - te - ra, he - rri - ak zu -
 zen e - pai - tze - ra.



- ✂. Ospatu Jauna zitaraz,
 zitaraz eta kantu-hotsez,
 turutaz eta adar-hotsez;
 egin irrintzi errege den Jaunari. ✂.
- ✂. Egin beza orro itsasoak eta bertako guztiak,
 munduak eta bertan bizi direnek.
 Egin bezate txalo ibaiek,
 poz-oihu aho batez mendiek. ✂.
- ✂. Jaunaren aurrean,
 badator-eta lurra epaitzera.
 Justiziaz epaituko du mundua,
 eta zuzenbidez herriak. ✂.

Bigarren irakurgaia (2 Ts 3, 7-12)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Ondo dakizue nola jokatu behar duzuen, guk bezala egiteko; ez ginen zuen artean zabarkerian bizi izan, ez genuen inoren kontura ogia jan; aitzitik, gau eta egun lanean nekatu ginen, zuetako inorentzat zama ez izatearren. Bagenuen zuen kontura bizitzeko eskubidea, baina lan egin nahi izan genuen zuei jarraibide emateko. Zuekin egon ginenean, arau hau eman genizuen: lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer egin gabe, ikusmiran zeregintsu. Horrelakoei Jesu Kristo Jaunaren izenean agintzen eta erregutzen diegu, bakean lan eginez, irabaz dezatela beren ogia.

Aleluia (*Lk 21, 28*)

✠. Izan bihotz eta jaso burua,
hurbiltzen ari baita zuen askapena. ✠.

Ebanjelioa (*Lk 21, 5-19*)**Homiliarako argibideak****0.- JESUSEK DENA DAR-DAR JARTZEN DU**

- Aurreko igandeko ospakizunean Erromako Letrango basilikaren edertasuna oroitzen genuen. Badirudi gaurko ebanjelioa eta aurreko igandekoa kontrajarrian daudela Jesusek adierazten duen profezia.
- Kontuan izan dezagun aurtengo urte liturgikoa amaitzear dagoela datorren igandeko Jesu Kristo Erregearen festarekin.
- Tenplua zen juduentzat euren fede eta nazionalitatearen sinboloa zen. Tenpluak Jainkoaren Ituna eta herriaren babesa gogorazten zien. Ez zuen inork pentsatuko inolaz ere tenplu hura suntsituko zuen norbait egongo zenik.
- Jesusen iragarpenak dena dar-dar jartzen du. Baina, Jesusek adierazi nahi duena berarekin Itun Zaharra amaitu dela, tenpluaren izanak ez duela izateko arazorik, zerbait berria hasten dela, ordu arteko erlijioaren izaera legalista eta fariseua amaitu dela.

1.- EZ IKARATU

- Aspaldi esaten zigun abestiak: “ez dira betiko garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara”. Palestina, Kongo, Haiti edo Ukrainan jarraitzen duten gatazkek halako etsipenera zokoratzeko arriskua dugu buru gainean etengabe.
- Norbaitek esan dezake penaz “azken finean gizaki hutsak garela”, ez dugula erremediorik, gurekin ez dagoela zer eginik. Eta, konturatu gabe, gure esperantza hondoratzen da, gure etorkizuna iluntzen eta gure oraina eta biharko bizitza Jaunaren eskuetan dagoela ahazten zaigu.
- Egoera mingarri eta zailen aurrean Jesusek esperantzarako hauspoa ematen digu eta ez ikaratzeko eskatuz, gurekin egiten du gizakion bide bera onean eta txarrean.
- Badakigu fededunontzat garai hauek ez direla onenak. Garai bateko nostalgiak alferrik dira, haiek ez dira bueltatuko. Egungo historia ezagutu, bizitzen saiatu eta maitatu egin behar dugu.

2.- IRAUPENAREN IRAUPENEZ

- Kotoi artean hazten diren umeak ez ditugu behar bezala hezten. Gizakia izatearekin bat dator bizitzako koskak, harremanen zauriak, ez ulertze mingarriak eta oraina bakez bizitzeko zailtasunak.
- Zailtasunen aurrean etorriko dira urrea merke saldu nahian dabiltzanak, bizitzako zailtasunei tranpa egin nahian ibiltzen direnak. “Kontuz!” -diosku Jesusek.
- Garai hauek tinko eta irmo eusteko iraupena izateko ariketa egin behar dugu etengabe. Gu ahulak gara, baina Jainko Ona dugu gure urratsen laguntzaile. Ez gaude bakarrik, ez gara Jesu

Kristoren urratsei jarraituz oinez gabiltzan fededun bakarrak. Irautea da kontu eta ahulezian eustea, Jaunaren bultzada sentitzea.

- Azken arnasa hartzean Jaunaren eskuetan jartzeko gai bagara, eguneroko arnas apal eta txiki horretan bere esku utzi behar dugu gure izatea eta gure eginkizuna. Konfiantza osoz berak eusten gaituela, bera iraupenerako hauspoa emango digula. “Azken finean gizaki hutsak gara”, baina Jainkoa da gure salbatzailea!

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak eta onar ditzala onginahiz gure eskariak:

- Jaunak, on guztiaren sortzailea denak, dei egin diezaiela gaur ere erlijioso/erlijiosa bizitzan jarraituko dioten gizon-emakumeei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, indar guztien iturria denak, argi ditzala herrietako agintariak, bere eginkizunetan eta erabakietan asma dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, bizitzaren emalea denak, begira diezaiela errukiz gose direnei eta eman diezagula guztioi horiekiko arreta izateko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak, maitatzeko agindu zigunak, eman diezagula etsaiak maitatzeko indarra eta inori gaitzik ez egiteko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.

Gauza guztien hasiera eta amaiera zaren Jainkoa, gizadi osoa Zure Semearen Gorputz den tenplu bizian bildu nahi izan duzu; entzun otoizka ari zaizun Elizari eta egizu ikas dezagula onean eta txarrean itxaropen izaten, sufrimendua iraupenez eramanda betiko bizitza iritsiko dugula jakinik. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Oparigaien gaineko otoitza

Zuri, Jaun handi horri, aurkezten dizugun eskaintza honek
irits diezagula Zu leial zerbitzatzeko grazia,
eta eman diezagula betiko zorionaren fruitua.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Sakramentuaren dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak bere oroigarri egiteko
agindu zigun Eukaristia honek
handi dezala gugan maitasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

.

Azaroaren 23an

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGA

Agurra

Kristo, diren guztien Errege, gerta dakizuela bake eta salbamen eta Haren maitasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Liturgi-urteari amaiera emanaz Kristo Erregearen jaia ospatzen dugu gaur. Bera da gure historiaren erdi-muina; Berarengana goaz, Bera dugu helmuga.

Urte berezia izaten ari da hau «Itxaropenean erromes» ari dugun Jubileuan, eta amaitzeko oraindik hilabete falta bada ere, ez dago dudarik gaurko jaia ardatz bat dela itxaropenezko erromesaldi horren helmuga nor den aitortzeko. Berari aintza eta gorespen!

Damu-otoitza

Gurutzea du Kristok Bere errege-aulkia. Berari begiratzuz, eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, gizaki guztien Sal**ba**tzaile zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu guztiontzat gizatasun **ere**du zarena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guztion bihotzak Zuregana era**ka**rtzen dituzuna.
Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
diren guztien Errege den zeure Seme maitea ezarri zenuen
gauza guztien oinarri eta buru;
egizu onbera, izaki guztiek, bekatuaren uztarpetik askaturik,
Zu zerbitza zaitzatela beti eta goretsi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena


Samuelen liburuan Daviden gantzutzea kontatuko zaigu eta Ebanjelioan, Jesus ikusiko dugu errege, baina gurutzean iltzatua eta heriotzaren atarian. Gurutzean estuasun bera pasatzen ari den gaizkile batek bakarrik aitortzen du Jaun eta Jainko. Kolosarren gutuneko gorazarreak lagunduko digu guri Jesus bihotzez goratzen.

Lehenengo irakurgaia (2 Sm 5, 1-3)

Samuelen bigarren liburutik

Egun haietan, Israelgo leinu guztiek Hebronera Davidengana etorri eta esan zioten: «Zeure odolekoak gaituzu. Lehenago ere, Saul gure errege zenean, zuk gidatzen zenituen Israelen joan-etorriak. Gainera zuri esana dizu Jaunak: “Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel eta zeu izango zara israeldarren agintaria”».

Etorri ziren, beraz, israeldarren buruzagi guztiak David erregeagana Hebronera, eta honek hitzarmena egin zuen haiekin Hebronon Jaunaren aurrean. Eta haiek Israelgo errege gantzutu zuten.

Erantzun-salmoa (*Sal* 122 [121], 1-2. 4-5)

✠. Hura poza nirea, esan zidatenean:

«Goazen Jaunaren etxera!»

Hona orain nire oinak

zure ateetan, Jerusalem. ✠.

✠. Hara igotzen dira leinuak, Jaunaren leinuak,
Israelen lege denez, Jaunaren izena gorestera.

Han daude ezarriak auzi-mahaiak,

Daviden jauregiko mahaiak. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Kol* 1, 12-20)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Eskerrak ematen dizkiogu Aitari, argiaren erreinuan bere santuentzat prestaturik dituen ondasunetan parte izateko gai egin gaituenari. Ilunpearen menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; honengan dugu askapena, honengan bekaturen barkamena.

Jainko ikusezinaren irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sortua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zero-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du

eredu eta helburu. Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute.

Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa;

Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzeara, Kristok gurutzeari isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiekin.

Aleluia (Mk 11, 10)



✠. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrrena!
 Bedeinkatua datorren erreinua,
 gure aita Daviden erreinua! ✠.

Ebanjelioa (Lk 23, 35b-43)

Homiliarako argibideak

0.- NOREN ESKU DAGO MUNDUA?

- Galdetzen badiogu jendeari mundua noren esku dagoen, zalantzarik gabe, botere ezkutu eta ekonomikoen esku gaudela esango ligukete.

- Baina galdetzen hasita, ziurrenik oso gutxik erantzungo luke mundua Jainkoaren esku dagoela.

1.- KRISTO, ERREGE?

- Eguberri aurreko abendualdian sartu aurretik gaur ospatzen dugun Jesu Kristo gure Erregearen festak oroitzen digu Jainkoaren esku gaudela. Jaungoikoak Kristoren bitartez gurekiko duen borondatea agertzen du gaurko festak.
- Gaur egun ere erregeek indar eta botere handia izaten dute munduaren eta gizartearen egoerak aldatzeko eta moldatzeko, itxuraz, behintzat.
- Beren borondatea lege bihurtzen zen eta bere aginduak jendeak bete behar izaten zituen.
- Honetan, gauza guztietan bezala, errege onak eta errege txarrak egoten omen ziren. Herria azpian hartu eta zigortu besterik ez zuten egiten errege batzuk; beste batzuk, berriz, herriaren zerbitzari gertatzen ziren: herriaren beharrak ezagutu, behartsuei lagundu eta ondasunak banatu.

2.- INRI

- Gaurko liturgiak adierazten digu Jesu Kristo Errege dela. Baina, argi eta garbi ikusten da Nazaretoko Jesusen erregetzak ez duela zerikusi handirik gizarteko agintarien boterearekin.
- Zalantzaren balego, ikusi besterik ez dago non agertzen den Jesusen erregetzaren ezaugarririk handiena: gurutzean: INRI: Iesus Nazarenius Rex Iudeorum.

- Ez al da hau guztien Erregea, Mesias, Salbatzailea, guztia dezakeena? Baina aztertu dezagun nolako erregea den Jainkoaren Semea: ez da epaiaren erregea, zigorra, heriotza eta zaurituak nonahi uzten dituen erregea. Ez da palazioko eta diruaren erregea.
- Boterea eta aginte guztia bere esku izan arren, txikien artean lehen zerbitzari egiten da Jesu Kristo. Hauxe da gure Jaungoikoa.

3.- JAINKOAREN ERREGETZA

- Jesus bizitzako eredu hartu dugunok berak jorratutako baloreak lantzen saiatzen gara eguneroko bizitzan. Nola laburtuko genituzke Jesusen baloreak? Zein izan ote zen Jesusen zeregin eta helbururik nagusia? Zergatik eman zuen Jesusek bizitza?
- Erantzuna: Jainkoaren Erregetza da. Erregetza mostaza haziaren pareko, ogian sartzen den legamiaren antzekoa da. Isilean, ezkutuan dagoena, baina duintasuna eta gizatasuna sortarazten duen indar ezkutua: Jainkoaren Erregetza. Hau izan zen Jesu Kristoren ametsa eta lorpena: hau da gure Berri Ona: hauexek dira Jesusen Erregetzaren ezaugarriak: justizia, askatasuna, anaitasuna, adiskidetasuna, pazientzia, lagun hurkoari laguntzea, lana eta lan saria guztientzat, osasuna eta zoriona.
- Horretan ibili behar dugu kristauok lanean eten gabe: Jainkoaren Erreinua guregana etor bedi. Egin dadila Jainkoaren borondatea: guztiok anai izan gaitezen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Kristori, Bera baita gauza guztien Jauna eta Erregea:

- Elizako artzain eta kide guztiak saia daitezela beti gizadi osoa Jainkoarengana gerturatzen eta Kristoren gurutzeaz denei bake-bidea eskaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Erlijio eta kultura guztietan ezkutuan dagoen Ebanjelioaren haziak frutu eman eta ager dadin, guztiek ezagutu dezaten Kristo dela Jauna Jainko Aitaren aintzarako. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bekatuak, atsekabeak edo ezinak harrapatuta dauden guztiek Kristoren erreinuko askatasuna ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur Kristo Erregearen festaburua ospatzen dugun guztiok izan dezagula egun batean zeruko oinordekotza, argiaren erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, Aita guztiz santua, Jaungoiko ahalguztidun betierekoa, justizian eta maitasunean Zurekin errege izatera dei egiten diguzu; entzun Zure herriaren otoitzak, atera gaitzazu ilunaldi guztietatik eta sendotu gure gogoak, Zure Semearen urratsak jarrai ditzagun, gure bizitza besteentzat emanez, Kristoren paradisiko erregetza ere partekatu dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainerako otoitza

Gizadia Zurekin adiskidetzen duen opari hau eskainiz,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Seme Jesu Kristoren merezimenduei esker,
eman herri guztiei batasuna eta bakea.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko biziaren ogiaz janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, diren guztien Errege den Kristoren
esaneke izateaz pozten garenok
berarekin zeruko erreinuan betiko bizi gaitezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

